

GURE LURRA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Elkarlanean aurrera

COVID-19ak lehen sektorean eragindako krisiari aurre egiteko plana jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2. ALEA: UZTAILA 2020



AURKIBIDEA



FUNTSEZKO SEKTOREA 3. Or

Nola eragin dio COVID-19ak sektoreari.



BENDITA CONEXIÓN 9. Or

El despliegue de la Banda Ancha Ultrarrápida.




BASOGINTZA 14. Or

Gipuzkoako baso sektorea indartzeko ekimenak.



MIKEL ZUGAZAGASTI 18. Or

36 urteren ondoren erretiroa hartuko du.



LA ERRADICACIÓN DEL IBR 20. Or

Programa de prevención, erradicación y control del IBR



GAZTE PLANA 22. Or

23 nekazarik enpresa-plana martxan jartzeko laguntza jasoko dute.



BERTAKO PRODUKTUAK 25. Or

2020ko aurrekontu irekietan bozkatutako proiektua.



GOILARRE PROGRAMA 26. Or

Mendiko larreen kudeaketa eredu berria.



SAGARDO LEHIAKETA 29. Or

Zapiain sagardotegia, aurtengo irabazlea.



NIRE ETXETXOTIK 30. Or

Xabier Euzkitzeren hausnarketa itxialdiaren inguruan.



ALBISTE LABURRAK 31. Or

Landa ingurunekeo berriak
Mendian Txakurrekin arazorik baduzu deitu basozainari (33. Or).



GFAKO ATEAK ZABALIK 34. Or



Sektorea, lehena eta funtsezkoa

Ekaizaren ostean barealdia datorrela dio esaerak, eta badira egun batzuk normaltasun berria delakoan gaudela. Momentu egokia izan daiteke hau, nolabaiteko lasaitasunean, begirada atzera bota eta bizitakoaren hausnarketa egiteko. Seguruenik gauza berriak ikasi ditugu, egunerokoan oharkabean pasatzen zirenak baloratzen eta atzeratuta genituen zereginiei berrekiten. COVID-19ak eragindako krisialdiak hankaz gora jarri du mundua. Gure errutinak geldiarazi eta hainbat sektore ekonomiko zein sozial gogor jo ditu; horien artean gure baserritar eta ekoizleena. Egoera zailenean ere hortxe egon dira lan eta lan.

Konfinamenduak iraun duen bitartean, eta estatuen arteko mugak ixten ari zirela, premiazko produktu eta lehengaiak ziurtatu dizkigute. Herritarroi elikagai-hornidura bermatzeko egin duten esfortzua txalogarria da benetan. Ingurumena ere hizpide izan da azken hilabeteetan, batez ere, itxialdiarekin kutsadura mailak nabarmen egin duelako behera. Horren harira, landa inguruneak klima aldaketari aurre egiteko egiten duen ekarpena azpimarratzea bidezkoa dela deritzot, gure paisaiak babesteko, lurralde oreka zaintzeko eta jasangarritasuna bermatzeko. Gaur, zalantzarik gabe, inoiz baino argiago dugu zein inportantea den lehen sektore sendo bat edukitzea.

Ikasitakoaren bidetik, Gipuzkoako Foru Aldundian lehen sektorearekiko dugun konpromisoa berretsi nahiko nuke. Koronabirusaren osteko testuinguruan datozen erronkei aurre egiteko, 15,5 milioi euro bideratuko ditugu guztira. Helburua bikoitza da: batetik, lehen sektorea jarduera ekonomiko bezala balioan jartzea eta indartzea. Bestetik, kontsumitzaileen ardurari dei egitea bertako produktuen aldeko apustua egin dezagun; gure erabakiekin nahi dugun eredu sozioekonomikoa bultzatzen baitugu. Txanponaren bi alde horien arteko konpromisoa funtsezkoa izango da Gipuzkoaren etorkizuna bermatzeko. Elkarrekin egingo dugu aurrera!

Imanol Lasa Zeberio
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo foru diputatua

GURE LURRA aldizkaria

ARGITARATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunea eta Landa Ingurunekeo alorra.

Gipuzkoa plaza z.g. 20004, Donostia.

943 112 198 / 943 112 054

ERREDAKZIOA ETA DISEINUA: ARAZI

PORTADAKO ILUSTRAZIOA: ARAZI

INPRIMATZAILEA: MICHELENA ARTES GRÁFICAS S. L.

ALE BAKOITZAREN KOSTUA: 1,52 €

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako kostua.



Aldizkari hau basoen ustiaketa jasangarriaren bitartez eskuraturiko paperarekin sortua dago.

15,5 milioi bideratuko dira lehen sektoreko jarduera ekonomikoari eusteko



10.000.000 €	4.500.000 €	1.000.000 €
Jarduera ekonomikoari eta enpleguari eusteko.	Kalterik gehien jasan duten azpisektoreei laguntzeko.	Lurralde orekari eusteko.

Aldundiak lehen sektoreari laguntzeko krisi plan bat jarri du abian, departamentuko partida ekonomikoak eta programak berregokituz, aurrekontu kopuruari eutsita, eta pandemiak eragindako beharrei erantzunez. Guztira 15,5 milioi euro bideratuko dira, ondorengo hiru helburuekin:

1. Helburua: Jarduera ekonomikoari eta enpleguari eustea.

Foru Aldundiak, sektorearen lehiakortasunerako eta modernizaziorako funtsezkotzat jotzen diren laguntzen multzoari eustearen aldeko apustua egin du, guztira 10 milioi euroko zenbatekoa xedatuta horretarako.

Horien artean, nekazaritza ustiatagietarako laguntza planak daude (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) eta, besteak beste, honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan: enpresa kudeaketa hobetzea edo ekoizpen gaitasuna handitzeko

inbertsioak egitea; Mendialdeetarako Konpentsazio Ordainak; gazteak baserrian gelditzeko plana (Gazte Plana), zeinak belaunaldi erreleboa bultzatzen baitu ustiategiak martxan jartzea edo eskualdatzea babestuz; nekazaritza ingurumeneko neurriak; edo nekazaritza ekologikoari laguntzeko programa, ingurumenean eragin mesedegarria eta esanguratsua izatea ahalbidetzen duten ekoizleei zuzendua. Baserritarrentzako ordezkapen zerbitzua ere bere horretan uzten da, birusak sor ditzakeen gaixotasun bajei edo konfinamendu egoerei aurre egiteko. Oporrak eta bajak estaltzeko zerbitzua da, eta Aldundiak horretarako laguntzak ematen dizkie baserritarrei. Deialdi horietako ildo batzuk egokitu egingo dira COVID-19ak eragindako behar berriei aurre egiteko, beti ere sektoreko eragileekin lankidetzan.

La Diputación Foral de Gipuzkoa destinará un total de 15,5 millones de euros para responder a los retos del Primer Sector ante la crisis provocada por el COVID-19. Se tomarán medidas para el mantenimiento de la actividad económica y el empleo, el apoyo a los subsectores más damnificados, y el equilibrio territorial como principales ejes de actuación.

Baserritarren inbertsioetarako laguntza eskariei erantzuteko esfortzu berezia egin du Aldundiak, 2,7 milioiko aurreikuspenetik 4,1 milioietara igoaz.

Aldundiak dirulaguntza hauetarako 2,7 milioi euroko aurrekontua bazuen ere, eskari gehienak aurrera eraman ahal izateko ahalegina egin du, aurrekontua beste 1,4 milioi eurotan handituz.

Landa eremu berritzaile eta lehiakor baten alde

Inbertsio guzti hauek abian jartzeak Gipuzkoako landa eremuan gutxi gorabehera 12 milioi euro inbertituko direla esan nahi du; lurraldeko baserritarren azpiegiturak hoberrantz egingo dute eta sektorearentzat bultzada garrantzitsu bat izango da.

2. Helburua: Kalterik gehien jasan duten azpisektoreei laguntzea.

Helburu hau betetzeko krisiak zuzenean eragindako azpisektoreen **Erreskate Plana** dago batetik eta, bestetik, **Jarduera Berregituratzeko** eta **Dibertsifikatzeko Ekintzak**, pandemiaren ondorengo egoera berrira egokitzera bideratutakoak, alegia.

Erreskate Planaren barruan, dirulaguntza zuzenak bideratuko dira honako azpisektoreetara: artzaintza, sagardoa, txakolina, nekazaturismoa, lore mozketak eta zezenketetan aritzen diren ustialekuak. Honetaz gain, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, produktu horien salmenta eta kontsumoa sustatzeko ekimenak jarriko dira.

Jarduera berregituratzeko eta dibertsifikatzeko ekintzei dagokionez, oinarriko produktuak (papera, zelulosa, zura, etab.) sortzen dituzten jarduerak bultzatuko dira tokian-tokian, ekoizpenari zein eraldaketari dagokionez; ustiategi nekazaritza dibertsifikazioa sustatuko da, baso jarduera osagarrien bidez; ingurumen kalteak prebenitzen laguntzen duten oinarriko zerbitzuak mantenduko dira, sektoreko eragileen parte-hartzearen bidez (suteak, higadura, kutsadura); eta ekonomia zirkularrean eta klima aldaketaren aurkako borrokan aurrera egingo da, NBEren 2030 Agendaren arabera.

Lurraldean kaltetuen izan diren azpisektoreak identifikatu dira eta 1,1 milioi euroko zuzeneko laguntzak luzatuko zaizkie, izandako galerei aurre egiteko.

15.500.000€



Egungo egoera Ekain Muruaren hitzetan
Euskadiko Ardi Latxa Elkarte



Ardiak eta ahuntzak

“Itxialdian gastu berak izan ditugu, baina ez dakigu inbertsio hori berreskuratuko dugun. Zorionez, arkumeen krisiak ez dio hainbeste eragin Gipuzkoari, gehienak aterata baitzeuden eta artzainak ahal duten moduan saldu dituzte geratzen zirenak. Gaztari dagokionez, salmenta zuzenaren bitartez saltzen duten artzainak izan dira kaltetuenak, salmenta erabat gelditu eta desagertu baita. Alternatiba on line salmenta eta etxez- etxeko banaketa izan dira, baina hau partxe bat soilik da, ezin baita ohiko salmenta bolumenarekin alderatu. Lan gehigarri handia eskatzen du eta kontuan izan behar da esplotazio gehienak familiarrak direla eta baliabide mugatuak dituztela. Sektorea kontsumoa nola berraktibatzen den ikusteko zain dago. Badakigu honek gizarteari kalte ekonomiko handiak ekarriko dizkiola eta baikorrak izan nahi dugu baina ez gara inozenteak, beldur handia dugu”.

ALDUNDIAREN ZUZENKO LAGUNTZA:
Baldintzak:
• Nekazaritza ogibide nagusi izatea (ATP) izatea.
• 100 ardi baino gehiago izatea 2020ko Urteko Derrigorrezko Deklarazioan.

• 40 ahuntz baino gehiago izatea 2020ko Urteko Derrigorrezko Deklarazioan.
Dirulaguntzak:
• 8 euro ardiko.
• 12 euro ahuntzeko.
Gehiengo dirulaguntza:
7.500 €.

“Sektorea kontsumoa nola berraktibatzen den ikusteko zain dago”

Egungo egoera Unai Agirrearen hitzetan

Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena



Sagardoa

“Belarrondoko handia izan da guretzat, txotx denboraldia erdi-erdian harrapatu baitu. Horretaz gain, botila salmenta ere Aste Santu bezperan hasi ohi da igotzen, eta ostalaritzaren itxiera dela-eta garai bete-betean harrapatu du. Baina gu baikorrak gara, izan ere, egoera guztiak dute alde ona eta honek ere badu berea: 2020. urteak eskatzen duen garaira egokitu eta bide berriak bilatzen lagundu digu. Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenak gure produktua balorean jartzen jarraituko du, izan ere, nahiz eta jatorri izendapenak exijentzia eta lan handiagoa eskatu, kalitatea bermatzen dio produktuari eta horrek salmenta prezioaren gorakada dakar. Eta nola ez, kalitate hori bertako sagarren aldeko apustuarekin zuzenean loturik dago. Sagardoaren dibertsifikazioa da hurrengo pausoa, euskal sagardotik edo sagarretik abiatuta beste produktu batzuk sortzea esaterako”.

“ **Krisi honek 2020. urteak eskatzen duen garaira egokitu eta bide berriak bilatzen lagundu digu**”

ALDUNDIAREN ZUZENEKO LAGUNTZA:

Baldintzak:

- EAEko Nekazal eta Elikagai Industriako erregistroan izena emanda egotea 'Sagardo elaboratzaile' jardueran.

Dirulaguntza:

- Sagardogile bakoitzari 2.000 euroko kopuru finkoa.

- Kopuru finko horrek honako gehigarria izango du: Euskal Sagardoa Jatorri izendapenera zuzentzen den sagar kilo bakoitzeko 0,05 euro.

Gehiengo dirulaguntza: 7.500 €.

Egungo egoera Ruth Mozoren hitzetan

Getariako Txakolina Jatorri Izendapena



Txakolina

“Apirilean eta maiatzean salmentak ia erabat gelditu ziren, ia % 85 murriztu zirelarik. HORECA (HOTelak, RESTaurant, CATERing) kanala itxita egonda, zenbait upategik martxan jarri dute epe horretan etxex-etxeko entrega, baina salmenten hazkundera oso txikia izan da. Gure sektorearentzat oso garrantzitsua da turismoa eta hau modu orokorrean aktibatu arte, ez da salmenten gorakadarik ikusiko. Ildo horretan, upategiak dagoeneko hasi dira upategian bisitak egiten. Esan behar da sektoreak baikortasunez itxaron duela eta orain, udan, kontsumoa berreskuratu eta urtea salbatu ahal izatea espero dugu. Animatu gaiten ateratzera eta oso geurea den Getariako Txakolina bezalako produktua kontsumitzera”.

“ **Udan, kontsumoa berreskuratu eta urtea salbatu ahal izatea espero dugu**”

ALDUNDIAREN ZUZENEKO LAGUNTZA:

Baldintzak:

- Getariako Txakolina Jatorri Izendapenera izena emandako txakoligilea izatea.

Dirulaguntza:

- Ustialekuko 2.000 euroko kopuru finkoa.

- Kopuru finko horrek honako gehigarria izango du: Getariako Txakolina Jatorri izendapenera zuzendutako mahastiko hektarea bakoitzeko 250 euro (Ekoizpen Aitorpeneko datua).

Gehiengo dirulaguntza: 7.500 €.



Egungo egoera Idoia Ezkurdiaren hitzetan

Nekatur



ALDUNDIAREN ZUZENEKO LAGUNTZA:

Baldintzak:

- Gutxienez 0,4 Nekazaritzako Lan Unitate (UTA) izatea.

Dirulaguntza:

- Nekazalturismo bakoitzeko

1.500 eurotako kopuru finkoa.

- Kopuru finkoari honako gehigarria erantsiko zaio: UTA bakoitzeko 1.000 euro.

Gehiengo dirulaguntza:

7.500 €.

Nekazalturismoak

“Landaturismoei zuzenean eragin die COVID-19ak fakturazioan, erabat itxita egon behar izan baitute hiru hilabetez. Behin irekitzeko baimena izatean ere, hasiera batean jenderik gabe egon ginen. Horrez gain, higiene eta osasun protokoloa aktibatu da eta landa ostatu guztietan aplikatu behar izan dugu: horrek, segurtasun neurri zehatz batzuk hartzea, landetxea egokitzea, karteldegia egitea eta bezeroei guztiaz informatzea ekarri du. Ondorioz, inbertsio eta esfortzu berezi bat egin behar izan du sektoreak bere aldetik. Dena den, nahiz eta jakin ez garela iazko erreserba kopuruetara iritsiko, udara begira baikorrak gara”.

“ **Ez gara aurreko urteetako erreserba kopuruetara iritsiko, baina udara begira baikorrak gara**”

Egungo egoera Jorge Arizmendi hitzetan

Abelurreko landare saileko teknikoa



ALDUNDIAREN ZUZENEKO LAGUNTZA:

Baldintzak:

- Nekazaritza ogibide nagusi izatea (ATP) izatea Lore ekoizlea izatea.

Dirulaguntza:

- Ustialekuko 750 eurotako kopuru finkoa.

- Kopuru finko horri honako gehigarria erantsiko zaio: Ekoizpena bideratutako metro karratuko 0,75 euro.

Gehiengo dirulaguntza:


7.500 €.

Loreak eta baratza mintegiak

“Konfinamenduak baratze mintegiak produkzio maila baxuan harrapatu ditu, udazkeneko uztaren gehiengo dagoeneko bilduta (letxugak eta zerbak) eta udako uztaren landaketekin hasten (tomatea, piperrak, bainak, kalabazina, berenjena...). Hala ere, bereziki jatetxeetarako ekoizten diren produktuen salmentak oso kaltetuak izan ziren, ilarrak esaterako. Baita, partikularretarako mintegiak egiten dituzten esplotazioak ere, udaberri hasiera baratzak prestatzeko unea baita eta itxialdiaren lehen egunetan baratzera joatea debekaturik zegoenez mintegi asko galdu egin ziren. Lore mintegiak izan dira, ordea, guztietan kaltetuenak: moztutako loreei dagokionez, oso produktu galkorra da eta asko bota egin behar izan dituzte; lorategi, balkoi eta terrazetarako ontzietarako loreen salmenta ere bete-betean harrapatu zuen eta mintegietan sortutako produktuen kolapsoa dela-eta asko bota egin behar izan ziren. Hilabete haietako gastuak ez dira errekuperatuko, baina zorionez salmenta berraktibatu da”.

“ **Hilabete haietako gastuak ez dira errekuperatuko, baina zorionez salmenta berraktibatu da**”

Egungo egoera Asier Arrizabalagaren hitzetan
Saka ganadutegia



Zezenak

“Oso kalteturik atera da zezenen sektorea, izan ere, hasiera batean animaliak lekualdatzeko debekua izan genuen, eta ondoren jai guztiak bertan behera gelditu ziren. Nire kasuan 220 buru daukat eta zezenketarik egin ezin denez kalte ekonomikoa izugarria da. Ziurrenik datorren uda bitarte ez dut diru-sarrerarik izango. Okeletarako bideratzea ere ez da irtenbidea, izan ere, txorixotarako haragiaren prezioan ordaintzen dizute eta dirua galtzen dut. Gainera, datorren urtean berriro erosi beharko nituzke zezenak eta ez da erraza, nik arraza jakin bat baitut, zeina urtetik urtera etxean zezenak haziz hobetuz noan. Irtenbide bakarra Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak ematea da”.

ALDUNDIAREN ZUZENEKO LAGUNTZA:

Baldintzak:

- 2019ko Errenta Aitorpenean baserrietik eta zezen espektakuloetatik lortzen dituen diru sarreren kopurua, bestelako jardueretatik lortzen duena baino altuagoa izan behar du.

Dirulaguntza:

Sei hilabete baino gehiagoko buru bakoitzeko 50 euro.

Dirulaguntzak inoiz ezingo du gainditu 2019ko errenta Aitorpenean zezen erakustaldietatik lortu dituen diru sarreren kopurua.

Gehiengo dirulaguntza:
7.500 €.

“ Irtenbide bakarra Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak ematea da”

3. Helburua: lurralde orekari eustea.

Lurralde orekari dagokionez, eta zerga bilketaren jaitzierak Gipuzkoako herri txikienetako udalen beharrian eta kudeaketan izan dezakeen eragina ikusita, Planak 500.000 euro aurreikusten ditu udalei laguntza emateko eta haiekin lankidetzan aritzeko, horrela, baliabideak arrazionalizatzeko eta ematen dituzten zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko; udalaz gaindiko laguntza kolektiboko proiektuak eta plataformak indartzeko; eta premia larriko kasuetan baliabide ekonomikoak udaletara bideratzeko.

Horrez gain, beste 500.000 euro bideratuko dira, COVID-19aren krisiaren ondorioz konektagarritasun ezak eraginda, hezkuntza eta laguntza eremuan nabarmendu diren desberdintasunak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko:

baserrietan isolatutako adineko pertsonen elikagaiak hornitzeko arazoak, ikasturtea behar bezala jarraitzeko zailtasunak, etab. “Aldundiaren apustu estrategikoetako bat da Gipuzkoan bizi garen guztion bizi kalitatea eta zerbitzu maila parekoak izango direla bermatzea, hirigunean edo landa ingurunean bizi garen alde batera utzita.



Alderdi hori zaindu egin behar dugu, ahal den neurrian. Gipuzkoako jarduera eta bizimodua beti egon dira nekazaritzari oso lotuta, eta etorkizunean ere hala jarraituko dute. Landa ingurunea eta gure herri txikiak biziberritzen jarraitu behar dugu, bertako bizimodua erakargarria izan dadin”, azpimarratu nahi izan du Imanol Lasa diputatuak.



Bendita conexión



La Banda Ancha de internet ha llegado a la mayoría de los caseríos antes que el COVID-19

La inversión de 2.356.000 euros que realizó la Diputación en el 2018 ha permitido que en 2.000 caseríos de Gipuzkoa hayan podido trabajar y estudiar durante este confinamiento

Las necesidades de la sociedad van cambiando y hoy en día resulta imprescindible tener una conectividad buena y rápida. En la actualidad, la conexión a internet se ha vuelto indispensable, tal y como se ha podido comprobar en estos dos meses y medio de confinamiento, al tener que trabajar y estudiar desde casa. Y también ha puesto de manifiesto las distintas realidades que aún existen en el territorio, los núcleos urbanos cuentan con una extensa red de conexión, mientras que en las zonas rurales escasean.

La Diputación puso en marcha un proyecto llamado *Landagipuzkoa* en 2018 para solventar este problema llevando la mejor de las conexiones a las zonas rurales de Gipuzkoa. En consecuencia en este confinamiento 2.000 caseríos del territorio han disfrutado de la banda ancha ultrarrápida. Los beneficiarios han sido aquellas que viven a menos de 2 kilómetros del casco urbano, y que habitan en localidades de menos de 2.500 personas. 49 de las 89 localidades de Gipuzkoa se sitúan en este umbral, y son considerados pueblos pequeños.

Al resto de caseríos la conexión ultrarrápida les llegará antes del 2023

A pesar de la crisis ocasionada por el coronavirus, y de los recortes presupuestarios, la Diputación mantiene su partida presupuestaria destinada a *Landagipuzkoa*, y sigue con el compromiso de conectar a todo el medio rural de Gipuzkoa. "Es esencial proveer del mejor servicio de conexión a nuestros baseritarras y a todas las personas que viven en los pueblos pequeños para combatir la despoblación", señala Iñaki Labaka, responsable de *Landagipuzkoa* de la Diputación.

En los pueblos pequeños faltan 1.200 caseríos por conectar, y éstos serán los siguientes en ser atendidos, gracias a una segunda inversión que realizará la Diputación. La extensión de la banda ancha ultrarrápida a los 4.000 caseríos restantes de Gipuzkoa, ubicados en las localidades de más de 2.500 habitantes, se realizará en la tercera convocatoria de ayudas. En total serían 5.200 caseríos los que recibirían la banda ancha ultrarrápida antes del 2023.



La colaboración de los ayuntamientos será indispensable para el despliegue de la banda ancha ultrarrápida en los 40 municipios de más de 2500 habitantes

La Diputación ve indispensable la colaboración de los ayuntamientos, tanto en la gestión como en la financiación de *Landagipuzkoa*, y así lo expuso el diputado general Markel Olano en una reunión de trabajo celebrada en Tolosa con los representantes de los ayuntamientos: "Es un proyecto de una gran complejidad técnica, administrativa y económica, y será viable si trabajamos codo con codo con cada usuario, y en coordinación con cada ayuntamiento".

Tras esta reunión la gran mayoría de los ayuntamientos mostraron su conformidad y se comprometieron a colaborar con la Diputación Foral de Gipuzkoa, para poder llevar la banda ancha ultrarrápida a los caseríos de su localidad. En los próximos meses, la Diputación trabajará con cada ayuntamiento para analizar y acordar los importes económicos de la inversión así como los plazos estimados para su despliegue.

2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako 2.356.000 euroko inbertsioari esker, herri txikietak 2.000 baserrik banda zabal ultraazkarra dute dagoeneko. Helburua, 2023rako Gipuzkoako landa gune osora iristea da.



29 de enero, Tolosa. Jornada de trabajo del proyecto Landagipuzkoa a la que asistieron 85 representantes de ayuntamientos y asociaciones de desarrollo rural de Gipuzkoa.

¿Qué significa la conexión ultrarrápida o la banda ancha ultrarrápida?

La iniciativa *Landagipuzkoa* de la Diputación Foral de Gipuzkoa de llevar la conectividad a los caseríos mediante un canal físico (en el caso de la adjudicación del 2018 FTTH o dicho de otra forma, fibra óptica) permite tener servicios de voz (teléfono fijo), datos (internet), televisión y videovigilancia, o cualquier combinación de esos cuatro apartados.

Esta modalidad es el medio de transmisión de datos y de conexión a Internet que a día de hoy permite alcanzar mayores velocidades de comunicación. Es, asimismo, la tecnología con mayor potencial de evolución y crecimiento (superior a las redes inalámbricas tipo 4G o 5G) y mayor interoperabilidad a la hora de ser compartida por diferentes operadores.

Referente a nivel europeo

La extensión de la banda ancha ultrarrápida de Gipuzkoa es ya referente a nivel europeo y proporcionalmente superior a la de Alemania, Francia, Reino Unido o Italia juntos. El proyecto tiene iniciativas similares tan sólo en Japón y Corea.

Javier Zorrilla, director del Territorio Norte de Telefónica, explica que el despliegue de la banda ancha en Gipuzkoa es un claro ejemplo de colaboración público-privada: "Ha hecho que las infraestructuras de última generación lleguen a las instituciones, empresas, población rural y en definitiva al conjunto de la sociedad guipuzcoana, facilitando así su desarrollo y su transformación digital. También ha sido importante la apuesta de Telefónica por destinar importantes recursos propios a su desarrollo. En este sentido, es destacable resaltar que la banda ancha ultrarrápida fija llega ya a casi el 90% de la población del territorio y a cerca del 100% la de móvil."

Zorrilla añade que la Diputación Foral de Gipuzkoa se ha empeñado especialmente en este reto siendo consciente que las ayudas que otorga no se dirigen a las operadoras sino a la ciudadanía, que es la destinataria final: "Planes como la llegada de las redes ultrarrápidas al entorno rural, garantizan un futuro a zonas que, quizás, podrían quedarse despobladas perdiendo usos, costumbres y actividades muy arraigadas en Gipuzkoa, tanto social como económicamente".



Gorka Marcos
Beizama
Trabajador de la empresa Vicomtech

“La fibra óptica nos ha salvado el confinamiento”

“Nosotros estamos muy agradecidos, nos instalaron la fibra óptica diez días antes del confinamiento y la verdad que nos ha salvado el encierro. No se como podría haber trabajado si no, me imagino que tendría que haber estado de aquí para allá, cuando la oficina estaba prácticamente cerrada. En casa a veces estamos con cuatro dispositivos conectados a la vez, entre tabletas y portátiles, exprimiendo la conexión. Realmente la fibra óptica ha llegado a Beizama y sobre todo a nuestra casa en particular a tiempo”.

Miguel Anjel Idiakez
Gune inmobiliaria,
Ezkio

“Sin esta rápida conexión hubiese sido imposible trabajar los dos meses de encierro”

“Hace aproximadamente un año nos instalaron la banda ancha ultrarrápida, la cual ha sido la mejor solución para nosotros. Sobre todo durante los dos meses de confinamiento. El hijo mayor ha podido seguir con sus clases de la universidad todas las mañanas, y la hija con las del Liceo. Además, tenemos que tener en cuenta que los archivos que usamos nosotros en la inmobiliaria son de gran tamaño y por ello, sin esta rápida conexión hubiese sido imposible trabajar los dos meses de confinamiento. Le debemos mucho a la banda ancha ultrarrápida”.



Edurne Gaztañaga
Goikoetxe baserria,
Bidani-Goiatz

“La conexión va muy bien, incluso cuando se conectan los tres hijos a la vez”

“Ya hace un año que tenemos la conexión ultrarrápida, en nuestro caso lo necesitábamos sobre todo para los trabajos del colegio de nuestros hijos. Desde que nos instalaron esta conexión, los tres hijos pueden estar conectados a la vez y sin interrupciones, lo hemos agradecido mucho en este confinamiento.

También nos ha valido para hacer las guías de las reses. Antes nos teníamos que acercar a la oficina comarcal agraria y ahora lo hago desde casa. Se agradece que los que vivimos en zonas montañosas tengamos las mismas ventajas que los que viven en el centro del pueblo. Vivimos bastante aislados y estamos muy contentos de poder tener este recurso”.

Iñaki Oiartzabal
Berriki baserria,
Errezil

“Las comodidades de los pueblos grandes ahora también las tenemos en los pequeños”

“Pusimos la banda ancha ultrarrápida porque la conexión ADSL que teníamos antes no funcionaba bien, y se cortaba a menudo. Ahora que hemos estado confinados, nuestras dos hijas han estado utilizando los dos ordenadores que tenemos en casa de forma continua. Además tenemos cuatro móviles, el de mi mujer, y los de mis padres que también viven aquí. Estamos muy contentos con la instalación de esta conexión ultrarrápida, porque estas comodidades que se encuentran en los pueblos grandes ahora también las tenemos en los pequeños, nos hemos sentido parte de Gipuzkoa”.

Gipuzkoako baso sektorea indartzeko ekimenak

Baso Sektorearen egoera Gipuzkoan

Gipuzkoako baso sektorearen inguruko diagnostia egiterakoan, ezinbestean lehendabizi banda marroia gaitzaz hitz egitea tokatzen da.

Banda marroiak kaltetutako baso azalera handia da, eta horrek urtetik urtera insignis mozketak asko gehitu ditu. Honekin batera, landaketa berriak ere asko ugartu dira eta espezie aldaketa nabarmena izaten ari da.

BANDA MARROIA

INSIGNIS AZALERA:	33.000 ha.
KALTETZE MAILA:	Insignis azaleraren % 25 nabarmen kaltetuta dago.
LANDAKETA BERRIETAN GEHIEN ERABILTZEN ARI DIREN ESPEZIEAK:	Cryptomeria, Sequoia eta Pinu Maritimoa.
AIREKO TRATAMENTUA:	Madrilek ez du momentuz baimentzen eta hemen berriz, oposizio politiko handia gertatzen ari da.
IKERKETA:	Insignis landare erresistentea bilatzeko ikerketa lanetan ari gara eta honekin batera, gaitzari aurre egiten lagunduko duten beste produktu batzuk aztertzen ere bai.

Dena den, Gipuzkoako baso sektoreak baditu urteetan pilatzen joan diren barneko beste hainbat arazo eta zailtasun. Baso aktibitatearen errentagarritasun juxtuak eta epe luzeko

inbertsioak izateak, hainbat ondorio ekarri ditu, besteak beste; errelebo zailtasunak, basoen abandonoa eta kudeaketa falta, baso sail txikiak eta sakabanatuak, ustialekuen tamaina txikia, mugak ezagutzeko zailtasunak etabar.

INBERTSIOEN ITZULERA:	30 urtetik 120 urte bitarte.
AZALERA:	Basojabeen % 83k 20 Ha baino gutxiago dituzte.
ADINA:	Basojabeen erdiak 65 urte baino gehiago ditu.
BASERRIKO JARDUERAREKIN LOTURA:	Basojabeen % 36k ez dute inolako loturarik nekazal jarduerarekin.

Guzti honetatik ondorioztatu daiteke baso sektorearen egoera ez dela batere erraza. Dena den, Gipuzkoa kudeatu gabeko basorik gabe ezin dela ulertu irizten dio Gipuzkoako Foru Aldundi honek eta horregatik sektore hau suspertzeko ahaleginean jarraituko dugu orain arteko ekimenak sendotuz eta bide berriak jorratuz. Kudeatutako basoaren aldeko apostua egiten dugula azpimarratu nahi dugu, izan ere, basoak abandonatzea gipuzkoarrentzat ez da aukera bat: bideak ixtea, sute arriskuak, galera ekonomikoa, edota bertako lehengai berriztagarriak ez izatea baitakar.

Gipuzkoan kudeatutako basoak nahi baldin baditugu, hauen errentagarritasunean eragin behar da eta horretarako Gipuzkoako Foru Aldundia neurri ezberdinak bultzatzen ari da.

Ale honetan aurreneko bi puntuei buruzko azalpen batzuk emango dira.



BASOGINTZA NEURRI BERRIAK

1. Dirulaguntza deialdi berritua

2. Kudeaketa aukera berrien garapena

3. Landa lurren digitalizazioa

4. Baso osasun ikerketa

5. Baso aktibitatea gizarteratzea

6. Araudiaren egokitzapena

7. Sektorearen alde diharduten erakundeak babestu eta elkarlana areagotu

1 Baso jabe pribatuei zuzendutako dirulaguntza deialdia

2018ko banda marroiaren eraso bortitzak, baso sektorearen egoera aldatzea ekarri zuen eta horrek berekin, egoera berri horri aurre egiteko politika berritzaileen beharra ere bai. Egoera berriak, egiteko modu berriak eta aurrera egiteko apustua.

Zentzu horretan, dirulaguntza deialdian aldaketak sartu ziren. Zein dira aldaketa hauekin lortu nahi diren helburuak? Baso sektorea jardura ekonomiko bezala suspertzea, baso osasuna hobetzea, sektorea gaztetzea, baso sailen abandonoa ekiditea, ondo kudeatutako basoak izatea eta ustialekuen gutxieneko dimentsioa gehitzea.

Asmo handiko erronkak dira eta emaitzak ez dira epe motzean ikusiko. Bide berri baten hasiera da, epe ertain-luzera begira egindako apustu sendoa.

Basoko dirulaguntzak 2015-2019 legealdian

2015-2019 legealdian 17.276.714€ bideratu dira basoko dirulaguntzetara eta 8.020 pertsona izan dira onuradunak.

Dirulaguntza deialdiaren arlo honetan azken lau urteotan egindako ahaleginarekin harro gaude. Guztira 17.276.714 euro bideratu dira dirulaguntza deialdietara basogintza programetara, eta horrekin, izan eta horrekin izan diren eskari guztiei erantzun ahal izan zaie.

Kontziente gara, ordea, goian aipatu diren helburu horiek lortzeko, dirulaguntza deialdia bera bakarrik ez dela nahikoa, eta horrekin batera, sektorea eta administrazioak elkarlanean, beste proiektu eta zerbitzu batzuk martxan jarri behar ditugula: baso lurren mugarraketa digitala, baso kudeaketan lagunduko duen zerbitzua, basoaren onurak hobetsiko dituzten neurri fiskalak, etab.


DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN ALDAKETA NAGUSIAK HIRU IZAN DIRA:

1 Lehentasuna jarri da gaixotutako pinudiak bota eta landaketa berrietan. Baita ere landaketa berriak aurrera ateratzeko mendian beharrezkoak diren lanak egitean. Beraz, eraginkorrenak diren neurriak bakarrik utzi dira, beste neurri batzuk kenduz: pinudi zaharrak mozteagatik ematen zen dirulaguntza, basoko makinaria erosteko dirulaguntza, etab.

2 Abiapuntu bezala, eskatzaile guztiek daukate oinarritzko dirulaguntza portzentaje bat. Oinarritzko portzentaje hori gehitu egiten da eskatzailea gazteagoa denean, nezakal jarduerarekin lotura duenean, baso kudeaketa plana daukanean eta baso azalera gehigarriaren arabera.

3 Irizpide berriak ezarri dira:

- Gaixotutako pinudiak mozteko dirulaguntza ez da moztzen den unean emango, baizik eta ondorengo landaketa egina dagoenean edo sailaren erabilera aldaketa gauzatu denean.
- Gaixotutako pinudiak moztu ondorengo landaketa eukaliptoarekin egin den kasuetan, gaixotutako pinudiak mozteagatik ez da dirulaguntzarik emango.
- Gaixotutako pinudiak botatzeko dirulaguntza, basojabearen adinaren arabera bi bloketan banatu da: gehiago kobratuko dute 67 urte baino gazteagoek eta "agraria" pentsiodunek.
- Landaketa berriak egiteko dirulaguntza % 50etik-% 90era bitartekoa izango da.
- Insignis eta eukalipto landaketak, eta hauen ondorengo lanak ez dira diruz lagunduko.
- Baso sailak transmititzeko dirulaguntza linea berri bat sortu da, 70 urtetik gorakoek, 60 urtetik beherakoei baso sailak saltzeko. Laguntza 1.000€/Ha-ko.



2 Kudeaketa aukera berrien garapena

Ondoren azalduko ditugun hiru ekimen berriek, lau helbururengan eragin nahi dute:

- Basogintza nekazal jarduerari uztartzea.
- Sektorea gaztetzea.
- Abandonoa ekidin eta baso kudeaketa jasangarria sustatzea.

Hiru ekimen berriak honako hauek dira:

“ICM” dirulaguntzetan gehigarriak basogintza uztartzeagatik

Europako Programazio berrira begira, mendialdeko nekazal jarduera duten baserritarrei basogintza profesionalarekin uztartzeagatik dirulaguntza gehigarri batzuk bideratzea litzateke asmoa. Gaur egun, baserritik bizi diren profesionalak, mendialdeko kalteordainen dirulaguntza bat jasotzen dute, eta berau kudeatzen duten lur azaleraren arabera da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa litzateke, baserritar horrek kudeatzen duen baso azalera ere kontuan hartzea.



ICM-BASOA

KIMUBERRITU plana

Nekazaritzan erreleboa sustatzeko eta gazte berriak sektorean barneratzeko Gaztenek programa dagoen bezala, baso sektorean erreleboa sustatu eta profesionalizatzea da programa honen helburua.

Alde batetik Gaztenek programan nekazal jarduera bat bultzatzeko asmoz izena ematen duten gazteei, basogintza jarduera osagarri bezala lantzeko aukera emango zaie.

Bestalde, Gaztenek programaz baliatzen ez direnei (adinarengatik ezin dutelako, beste jarduera bat dutelako, nekazaritza proiekturik ez dutelako...) ere aukera eman nahi

zaie beraien baso proiektua garatzeko. Ibilbide honen tresnak honako hauek izango dira: formakuntza, basoak erosteko dirulaguntzak eta monitorizazio-tutorizazioa.

Programa honetan onartuak izango diren hautagaiek dirulaguntza eta beka baten aukera izango dute.

KIMUBERRITU

BASOTIK Kudeaketa enpresa

Gipuzkoako gizartea hiritartu egin da, basoaren eta bere kudeaketaren ezagutza galtzen ari da eta ondorioz, baso aktibitatearen abandonoa ematen ari da.

Arazo horri aurre egiten laguntzeko, abandonatutako baso hauek errekuperatu eta modu jasangarri batean kudeatzeko baso jabez osatutako enpresa bat sortzea proposatzen da. Baso jabe den edonork parte hartu ahal izango du enpresan bere basoen balioa enpresako kapitaleko partizipazio bihurtuz. Baso jabe berak baita ere parte hartu ahal izango du kapitalean ekarpena dirutan eginez. Eta baso jabeek gain, nahi duen edozein herritarrek ere parte hartu ahal izango du akzioak erosiz.

Guuzi honekin, basoaren kudeaketa efizienteago bat egitea lortuko litzateke eta beraz errentagarriagoa, basoen abandonoari aurre eginez.



BASOTIK

Merezitako deskantsua

Mikel Zugazagasti: “Sektorea gaztetzea eta erreleboa egitea da lehen sektorearen egungo erronka nagusiena”

Gipuzkoako lehen sektorearen alde 36 urte lanean aritu ostean, ondo merezitako erretiroa hartuko du Mikel Zugazagasti eibartarrak irailean. Txikitatik izan zuen baserriarekiko lotura eta zaletasun horrek bultzatuta Agronomia Ingeniaritza ikasketak egin zituen. Eskualdeko Nekazal Bulegoetan hasi zen lanean, eta jarraian hauen atalburu bilakatu zen; egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapen saileko Zerbitziburua da 2011z geroztik.

Ibilbide profesional luzea egin duzu Gipuzkoako lehen sektorean. Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia aberasgarria, badakizu, hainbeste urtetan aldaketa asko izan dira. 1983an hasi nintzen Eusko Jaurlaritzan, orduan oposizioak Eusko Jaurlaritzakoak baitziren, eta egin behar izan nuen lehen lana urte horretako uholdeetako kalteak baloratzea izan zen Elgoibarko inguruan. Gero bi edo hiru hilabeteko ikastaro trinko bat egin genuen Arkauten lanpostura egokitzeko, eta jarraian, 1984an, Ordiziako Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Bulegoan lanean hasi nintzen. Han egin nituen 8 urte, 1992rarte, eta orduan pasa nintzen hona, Donostiara, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoen Atalburu moduan. Bitartean, 1986an Eusko Jaurlaritzatik

Foru Aldundirapasatu ginen, eskumeneren transferentzia batzuk egin ziren, eta hor gure zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundira pasa zen. Ordutik Donostian ari naiz lanean, atalburu 1992tik 2011rarte, eta 2011etik aurrera Landa Garapeneko Zerbitziburua.

Urte guzti hauetan asko aldatu da lehen sektorea eta zuk bilakaera hau gertutik bizi izan duzu. Zein izan dira eman diren aldaketa garrantzitsuenak?

Nik uste aldaketa garrantzitsuena teknologikoa izan dela. Gaur egun, teknologiarekin egiten da lan asko eta gure sektorean zailtasuna daukagu arlo horretan; batzuk

abilagoak direnak moldatzen dira, baina jende heldu dezente daukagu, oinarriko ikasketekin eta horiei kostatzen zaie egokitzea. Teknologia berriak diogunean ez da soilik internet, ordenagailuak eta app-ak soilik, baita makinarian eta tresneriatan ere (jezteko makinak, traktoreak...) horietan ere aldaketa handia izan baita.

“Urte guzti hauetan aldaketa garrantzitsuena teknologikoa izan da”

Zein dira urte guzti hauetan sektoreak izan dituen erronka edo zailtasun nagusienak?

Nire ustez, gaur egun sektoreak duen erronka nagusiena, sektorea gaztetzea edo errelebo falta da. Oso zaila da jendea animatzea nekazaritzan aritzera. Urtero animatzen da gazte kopuru bat, baina ez uzten duen jende kopuruaren adina, jende gehiagok uzten du sartzen dena baino. Egia da hasten direnek ustiategi handiagoak ezartzen dituztela, baina hala ere erronka nagusia hori da, jendea sektore honetara erakartzea. Horretaz gain, Gipuzkoan, eta Bizkaian ere horrela gertatzen da, zailtasunak ditugu lurra eskuratu ahal izateko. Baserriak husten dira baina hauek nekazaritzan lan egin nahi duten gazteengana iristeko zailtasunak ditugu. Gipuzkoako Lur Funtsa jarri dugu martxan, baina horretara orain arte Administrazioaren lurrak soilik iritsi dira, partikularren lurrik ez. Hori ere sektoreak duen erronka bat da, nola egin lurrak gazteengana errazago iritsi daitezten. Lurren jabeek abantaila fiskalak edo laguntzak emanez edo, baina zerbait egitea komeni da.

“Baserriak husten dira baina hauek nekazaritzan lan egin nahi duten gazteengana iristeko zailtasunak ditugu”

Eta maila pertsonalean, baduzu bizipen edo anekdota bereziren bat?

Jendearekiko harremana oso gertukoa eta sendoa da Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan. Askotan jendeari eskaerak

egiten eta dokumentazioak aurkezten laguntzen genion. Eta gizon batek behin laguntza bat eskatzeko beharrezko zuen errenta aitopenaren agiria ez zuela bilatzen, oso txarra zela horretarako, eta ondorioz, administrariak karpeta bat eman zion, bertan guztia gordetzen joateko proposamena eginez. Eta hantxe azaldu zitzaigun hurrengo urtean karpeta bera eskuetan zuela, urte guztian zehar jasotako dokumentazio guztia zuelarik: propaganda, paper mordo bat eta, baita ere, beharrezkoa zuen errenta aitopen ditxosozko hori ere. Iritsi eta esan zigun: “Zuek hartu hemendik laguntza eskatzeko behar duzuen dokumentazio guztia”. Hori bai dela bulegoko langileonganako konfiantza osoa izatea.

“Jendearekiko harremana oso gertukoa eta sendoa da Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan”

Nola ikusten duzu lehen sektorearen etorkizuna?

Gauza guztiak aldatzen doaz eta lehen sektorea ezin da izan kanpo gelditzen den gauza bat. Bai saltzeko modua eta bai jendearekin harremanak izateko modua aldatzen doaz, eta hori oraingo COVID-19 honen egoerarekin ere ikusi da. Bakoitzak bere bidea edo bere tokia bilatzen jakin behar du. Gaur egun globalizazioarekin prezioak ez daude gure esku eta orduan, produkzio handietan edo maila intentsiboetan ari dena, eta supermerkatuetarako edo kate handietarako ekoizten ari dena harrapatuta dago. Produktua erosiko diotenaren bermea izango du,

baina prezio aldetik izango du kezka, izan ere, mundu globalizatu honetan Brasil, Frantzia edo Txinan gertatzen denaren menpe dago prezioaren igoera edo jaitsiera. Batzuk, gertuko komertzializazioaren aldeko apustua egiten dute (denda txikiak, kontsumo taldeak, etxerako zerbitzua...). Itxialdian egon garen denboraldi honetan guzti hori ugaritu da, eta nik uste jarraituko duela.

Eta gertuko komertzializazioa aukera bat izan daiteke?

Aukera bat izango da, eta batzuk COVID-19aren krisiak eman duen aukera aprobetxatu eta mantenduko dute, internetez edo telefonoz eskaera jaso eta autoz zerbitzu eman eta horrelakoak... Horrez gain, nik uste merezi duela nekazaritza ekologikoaren alde esfortzu bat egiteak, gero eta eskaera handiagoa baitago.

“Merezi du nekazaritza ekologikoaren alde esfortzu bat egiteak, gero eta eskaera handiagoa baitago”

36 urte lehen sektorean lan egin ondoren, erretiroa hartuko duzu irailean, eta lekukoa utziko diezu atzetik datozenei. Eta hemendik aurrera, zertan eta nondik ibiliko da Mikel Zugazagasti?

Bada hemendik aurrera bizitza lasaigo bat, emaztea ere jubilatuta dago eta hemen ibiliko gara: paseatu, kirol pixka bat egin eta zerbait sortzen bada elkarteren batean edo lagunduz.



Programa de prevención, control y erradicación del IBR en Gipuzkoa

La IBR es una enfermedad infectocontagiosa del ganado vacuno, se caracteriza porque los animales que sufren la enfermedad no se curan y mantienen la capacidad de infectar a otros animales durante toda su vida.

La enfermedad provoca un amplio rango de manifestaciones clínicas y ocasiona pérdidas económicas directas en las explotaciones afectadas, así como limitaciones y/o restricciones al movimiento de animales y al comercio.

PROGRAMA OFICIAL

El Real Decreto 554/2019 ha establecido a nivel estatal las bases del **Programa voluntario de prevención, control y erradicación del IBR**.

Se trata de un programa de carácter oficial y obliga a la Diputación Foral de Gipuzkoa, como administración competente en sanidad animal, a ponerlo en práctica y a otorgar a cada explotación ganadera la calificación sanitaria frente a IBR que le corresponda, en base a su situación sanitaria y adhesión o no al programa.

PROGRAMA VOLUNTARIO

Se trata de un programa voluntario al que se pueden adherir aquellas

explotaciones ganaderas que así lo deseen. Con la adhesión el ganadero se compromete a llevar a cabo durante tres años el programa de prevención, control y erradicación del IBR en su explotación siguiendo las directrices del RD 554/2019.

Sin embargo, es previsible que en un plazo más o menos corto, el programa de lucha frente al IBR pueda pasar a ser obligatorio, tal y como ha sucedido históricamente en los programas de lucha frente a otras enfermedades.

OBJETIVOS

El objetivo del programa es que cada explotación adherida a la misma obtenga, en la medida de su situación de partida, la mejor calificación sanitaria posible frente al IBR y ponga en marcha un programa que facilite con el tiempo la obtención de la máxima calificación: Explotación Oficialmente Indemne frente al IBR (IBR4).

Se pretende asimismo que aquellas explotaciones ganaderas que se encuentren en disposición de obtener la calificación IBR4, la obtengan y puedan aprovechar sus ventajas.

Por último, se pretende que todas las explotaciones adheridas al programa implanten las medidas necesarias para evitar un empeoramiento de su situación sanitaria actual.

CALIFICACION DE EXPLOTACIONES:

- IBR 0: explotaciones donde se desconoce la situación sanitaria, no se aplica el programa o éste se ha incumplido.
- IBR 1: explotaciones con animales gE+ en el grupo de edad 9-36 meses y vacunación con vacuna marcada.
- IBR 1-: explotaciones con muestreos en animales del grupo de edad 9-36 meses con resultados gE- en los últimos 12 meses y vacunación con vacuna marcada.
- IBR 2: explotaciones con muestreos en animales del grupo de edad 9-36 meses con resultados gE- en los últimos 24 meses y vacunación con vacuna marcada.
- IBR3: Explotación con el 100% de los animales mayores de 9 meses gE- y vacunación con vacuna marcada.
- IBR4: Explotación con el 100% de los animales gB- 0 gE- (animales vacunados antes de la obtención) y sin vacunación durante los últimos 2 años.

METODOS DE LUCHA

Para el control de la enfermedad se deben utilizar las siguientes herramientas: Pruebas sanitarias, vacunaciones, control de movimiento pecuario y eliminación de animales positivos.

ESTUDIO DE PREVALENCIA DEL IBR

A lo largo de 2020 se ha realizado un estudio de prevalencia en 1312 explotaciones: el 48% cumplen las condiciones para poder ser calificadas como IBR4 y otro 20% podrían también serlo de manera inmediata

sin necesidad de iniciar un programa vacunal y sin tener que eliminar ningún animal y el 32% restante, se encontrarían en situación de iniciar un programa vacunal que les pudiera llevar a obtener la calificación IBR4 a corto/medio plazo.

Este estudio ha permitido confirmar que las situaciones en las que conviven animales procedentes de distintas explotaciones (pastos comunales, ferias, concursos, etc.) suponen un mayor riesgo de difusión de la enfermedad y una dificultad añadida para la prevención, control y erradicación de la enfermedad.

MEDIDAS ADOPTADAS

La Diputación Foral de Gipuzkoa junto con los representantes del sector ganadero vacuno, los dos sindicatos agrarios EHNE y ENBA y los centros de gestión LURGINTZA y ABELUR, puso esta primavera en marcha el Programa Oficial de Prevención, Control y Erradicación del IBR en Gipuzkoa. Para ello contó además con la colaboración del colectivo de veterinarios Abere Albaitariak.

Las medidas adoptadas han sido las siguientes:

- Adaptación del Laboratorio de Faisoro para la realización de nuevas pruebas analíticas IBR.
- Adaptación y desarrollo de programas informáticos adecuados.
- Puesta en marcha del Programa Oficial, aprobando protocolos vacunales y desarrollando programas informáticos.
- Publicación de una Orden Foral para regular las condiciones y requisitos para el acceso del ganado vacuno a pastos comunales.
- Aprobación de protocolos de vacunación.

RETOS A CORTO PLAZO

La Diputación Foral de Gipuzkoa va a continuar trabajando junto a los ganaderos para que este programa de lucha frente al IBR sea eficaz y permita

mejorar la situación sanitaria de las explotaciones ganaderas de Gipuzkoa.

Para ello, es fundamental continuar con la interlocución con el sector ganadero, difundiendo adecuadamente el programa de lucha para que la cabaña ganadera de Gipuzkoa pueda adherirse al mismo y se beneficie de sus efectos.

En esta línea, la Diputación Foral de Gipuzkoa pretende a corto plazo:

- Ampliar el estudio de prevalencia a las explotaciones ganaderas que no han realizado la campaña de saneamiento ganadero en 2020.
- Realizar el control sanitario de los animales a su regreso a la explotación desde los pastos comunales.
- Poner en marcha el control sanitario del IBR en el movimiento pecuario de los animales en las explotaciones adheridas al programa.
- Otorgar la calificación oficial frente al IBR a las explotaciones ganaderas de Gipuzkoa.
- Regular las condiciones sanitarias frente al IBR a cumplir por los animales que participen en concentraciones de ganado (ferias, concursos, etc.).
- Realizar reuniones con los ganaderos para difundir el programa, conocer su opinión y aclarar dudas.



CONCLUSIONES

El estudio de prevalencia realizado indica que la situación sanitaria actual es muy favorable para la puesta en marcha inmediata del programa, y que el no hacerlo ahora podría suponer que la situación de partida fuera bastante peor en el futuro.

Por todo lo anterior la Diputación Foral de Gipuzkoa entiende que se debe continuar en esta línea, con el objetivo de que el programa se aplique lo antes posible al mayor número posible de explotaciones de Gipuzkoa.

De esta manera podrán obtener lo antes posible los beneficios y ventajas que todo programa sanitario conlleva y se encontrarán en una situación privilegiada cuando el programa voluntario pase a ser obligatorio.

IBR KOSTUAK 2020		
ANALISI KOSTUA	LAGIN KOPURUA	KOSTU GUZTIA
IBR gE: 5€/lagineko	24.022	120.110 €
IBR gB: 5€/lagineko	24.022	120.110 €
	GUZTIRA	240.220 €

IBR KOSTUAK 2019		
ANALISI KOSTUA	LAGIN KOPURUA	KOSTU GUZTIA
IBR gE: 5€/lagineko	10.847	54.235 €

2019-2020KO KOSTUEN ALDEA: 185.985 €

IBR KOSTUAK 2021 (Aurreikuspena: abere guztiei eginda)		
ANALISI KOSTUA	LAGIN KOPURUA	KOSTU GUZTIA
IBR gE: 5€/lagineko	39.000	195.000
IBR gB: 5€/lagineko	39.000	195.000
Albaitari zerbitzuak		80.000 €
GUZTIRA		470.000 €



Zabaldu bidea gazteei

Gipuzkoako 23 nekazari gazteri enpresa-plana martxan jartzen lagunduko die Aldundiak

Gipuzkoako lehen sektorearen etorkizuna bermatzea ezinbestekoa da, eta ondorioz, gazteak sektorerara erakarri eta laguntzeko asmoz 'Gazte plana' deituriko programa martxan jarri zuen duela 15 urte inguru Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzarekin eta gainontzeko erakundeekin elkarlanean. 2020ko deialdian 23 nekazari gazte izango dira programa

honen onuradunak, 17 gizonezko eta 6 emakume. Aldundiak, guztira 906.280 euro bideratuko ditu, eta euren enpresa planak martxan jartzen laguntzeko izango da; bakoitzaren batez besteko prima 37.671,67 eurokoa da.

23 onuradun horietatik 6 proiektu berriak dira eta beste 17ak lehendik martxan dagoen ustiategi batean instalatuko dira.

Gazteek 5 urteko epea dute euren enpresa-plana garatzeko eta instalazioa burutzeko, baina ez dute zertan 5 urte horiek agortu beharrik, lehenago ere burutu dezakete.

Maite Manzisidor eta Ibai Iriondo Gazte planaren onuradunak dira eta beraien enpresa-planaren nondik-norakoak azaldu dizkiote Gure Lurra aldizkariari.

AINHOA	OTAÑO	ABALTZISKETA	HARAGITAKO BEHIAK
ASIER	APERRIBAI	AIA	UNTXIAK
PEIO	ETXANIZ	AIA	UNTXIAK
TXOMIN	ALBERDI	ANTZUOLA	ARDIAK+ HARAGITAKO BEHIAK
ASIER	PLAZAOLA	AZPEITIA	BARATZAGINTZA
USOA	OLAIZOLA	AZPEITIA	HARAGITAKO BEHIAK
IGONE	SALDIAS	BERROBI	BARATZAGINTZA
MIRIAM	SALDIAS	BERROBI	BARATZAGINTZA
IÑAKI	OTAÑO	DONOSTIA / SAN SEBASTIAN	ARRAULTZAKO HEGAZTIAK
ARGIÑE	RUBIO	ELGOIBAR	BARATZAGINTZA
AITOR	ZAPIRAIN	ERRETERIA	ESNETAKO BEHIAK
MIKEL	ZAPIRAIN	ERRETERIA	FRUTAGINTZA
XABIER	EZEIZA	HERNANI	BARATZAGINTZA+ HARAGITAKO BEHIA
JOSEBA	AZPIOLEA	HERNANI	BARATZAGINTZA+ HARAGITAKO BEHIA
IKER	SUKIA	LAZKAO	ARDIAK
IBAI	IRIONDO	LEZO	BARATZAGINTZA
EGOITZ	ESNAL	GETARIA	ESNETAKO BEHIAK
XABIER	MARTIARENA	OIARTZUN	HARAGITAKO BEHIAK
GORKA	SILVAN	ZARAUTZ	BARATZAGINTZA
JULEN	ZULAICA	ZARAUTZ	BARATZAGINTZA
ARITZ	EIZAGIRRE	ZESTOA	ESNETAKO BEHIAK
XABIER	ARANBURU	ZIZURKIL	ARRAULTZAKO HEGAZTIAK
MAITE	MANZISIDOR	ZUMAIA	ESNETAKO BEHIAK

2020ko Gazte Planaren onuradunak:

Plan joven

23 jóvenes agricultores y agricultoras de Gipuzkoa se beneficiarán del Plan Joven 2020 de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En total se destinarán 906.280 euros para que puedan poner en marcha su proyecto empresarial.

Ibai Iriondo Gurrutxaga

- 31 urte
- Urnieta
- Baratzagintza ekologikoaren ustialeku berri bat jarri du martxan Lezon, Gipuzkoako Nekazaritza Lur Funtseko sail batean

Nola sortu zen proiektua?

Ni izatez informatikoa naiz eta arlo horretan egin dut lana betidanik. Ez nengoen, ordea, gustura lanarekin, eta duela pare bat urte lana uztea erabaki nuen. Ordurako banuen baratze txiki bat eta gustuko nuen lana, beraz, apustua egin eta sektore honetan saiatzea erabaki nuen. Langabezian egon nintzen bitartean baserri batekin aritu nintzen baratzagintza ikasten eta proiektua gauzatzeko lurren bila ere aritu nintzen. Lurrak lortzea oso zaila egin zitzaidan, ordea, eta etsirik informatikari lanetara bueltatu nintzen berriro. Halako batean, ordea, Aldundiak lurren lehiaketa publikoa atera zuen Urrullon, Lezon, enteratu nintzen eta bertara aurkeztu eta partzela bat lortu nuen. Horrela, berriro ere lana utzi eta proiektu honetan sartu nintzen burubelari iazko abenduan. Nire asmoa barazki ekologikoak ekoiztu eta otarre ekologikoak saltzea da.

“Lurrak lortzea oso zaila egin zitzaidan, eta etsirik informatikari lanetara bueltatu nintzen berriro”

Nola izan zenuen Gazte Planaren berri eta zein izan dira eman dituzun pausak?

Behemendiren bitartez jakin nuen honen berri, eta behin onartua izan nintzela jakitean Lurgintzako tekniko bat ezarri zidaten, tutore moduko bat. Berak, enpresa-plana garatzeko aholkularitza tekniko eta ekonomikoa eskaini dit: zalantzak argitzen lagundu dit, eta baita norabide bat edo bestea hartu erabakitzen ere.

Zertan lagundu dizu Gazte planaren onuradunetako bat izateak?

Aurrezkirik izan ezean, ezinezkoa da enpresa-proiektu bat martxan jartzea, hori dela-eta, hasierako dirulaguntza hori ezinbestekoa da, nire kasuan behintzat. Horrez gain, tutorearen laguntza ere garrantzitsua da, batez ere hasiera horretan eta jakitea aurrera begira edozein zalantza kontsultatu diezaiokezula. Biolur Elkartearen ere bazkide naiz eta han ere jaso dut aholkularitza teknikoak.

“Aurrezkirik izan ezean, ezinezkoa da enpresa-proiektu bat martxan jartzea, eta, hasierako dirulaguntza hori ezinbestekoa da”

Zein fasetan aurkitzen da zure proiektua une honetan?

Ekainean hasi naiz landatzen eta aurtengo 20 barazki ezberdin aukeratu ditut: tomatea, porruak, lekak, zerbak edo berenjenak, esaterako. Irailerako salmenta zuzenaren bitartez lehen otarreak saltzen hastea da asmoa.

Garrantzitsua deritzozu Aldundiak Gazte Plana bezalako ekimenak bultzatzea?

Bai, dudarik gabe, hasierak oso zailak baitira. Nire enpresa-plana martxan jartzea ere ez da erraza izango, baina azkenean dirulaguntza handi bat da jasotzen duguna, eta oso lagungarria hastapenentarako. Laguntza hori gabe gaur egunean oso zaila da ezer martxan jartzea.

Zer esango zenieke lehen sektorean lanean hastearrekin zalantzan dauden gazte horiei?

Ni ere oraindik berria naiz mundu honetan eta ez dut asko ezagutzen, baina momentuz, oso gustura naiz izan dudana esperientziarekin. Lan guztietan bezala egun txarrak daude, baina onurak ere asko dira: zuk zure proiektua martxan jartzea, zure nagusia izatea eta irabaziak zuretzako izatea, guztia zuk antolatzea... hori guztia oso polita da. Ingurukoek ezinezkoa emanda ere animatzeko esango nioke, jende asko nekatuta dago lan neketsuez eta itsusiez eta nik uste sektore hau gogorra baina oso polita dela. Nahiz eta hasi besterik ez naizen egin, eta oraindik asko daukadan ikasi eta egiteko. Gainera, nik uste egiten duguna beharrezkoa dela, bertako eta kalitatezko produktu ekologiko bat izan dezagun.

“Jende asko nekatuta dago lan neketsuez eta itsusiez eta nik uste sektore hau gogorra baina oso polita dela”

“ Informatikari lanak utzi eta baratzagintzan hasi naiz”



Maite Mancisidor Eizagirre

- 27 urte
- Zumaia
- Gurasoen baserrian erreleboa hartuko du. Esnetako eta haragitarako behien ustialekua.

Baserriarekin jarraituko duen laugarren belaunaldia zara. Nola izan da errelebo hori?

Egoerak bultzatu nau horretara. Duela bost urte aita hil zen eta orduan guztia hankaz gora geratu zen baserrian, bera baitzen arduradun nagusia eta gauza asko nola kudeatu ez genekiela gelditu ginen. Urte batzuetan baserria kili-kolo egon da eta orain gazteok ardura hartzeko garaia iritsi da. Hasiera batean, etxean dugun nekazalturismoan hasi nintzen lanean, baina orain baserrian zentratu naiz.

“Urte batzuetan baserria kili-kolo egon da eta orain gazteok ardura hartzeko garaia iritsi da”

Zuk aurkeztu duzun enpresa-plana baserrian teknologia berriak ezartzean datza ezta?

Bai, behiak jektzeko robota zehazki. Izan ere, gero eta jende gutxiago gaude baserrian lan egiteko eta ez gara iristen, ezin zara belarretan eta ukuiluan aldi berean aritu. Robota alternatiba bat da. Eta helburua baserria ere garai berrietara egokitzea da.

Zertan lagundu dizu Gazte Planak?

Dirulaguntza ezinbestekoa izan da robota erosi ahal izateko. Oso prezio altuak dituzte eta kanpoko laguntzarik gabe ezinezkoa da. Nik uste sektore guztiak egokitu behar direla teknologia berrien laguntzaz aurrera atera ahal izateko. Eta lehen sektoreko produktuak hain prezio baxuan ordaintzen dituztenez, instituzioen laguntza ekonomikorik gabe ezinezkoa da makineria berria erostea: bai traktorea, bai belarra mozteko makina... Guk makinaria hauek ezinbestekoak ditugu lanean jarraitu ahal izateko, ez gara ariko duela 40 urteko traktore batekin. Erraztasunak behar ditugu, gainontzeko sektore guztietan bezala.

“Erraztasunak behar ditugu, gainontzeko sektore guztietan bezala”

Lehen sektorearen erreleboa berrmatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren erronka nagusienetako bat da. Zer egin daiteke zure ustez gazte hauek animatzeko?

Galdera ona. Arazoa da 35-55 urte bitarteko belaunaldi oso bat galdu dela. Tailerrean hasi dira

lanean 16 urterekin eta jubilatuta arte, eta etxean bertan bultzatu zaie horretara, baserriatik dirurik ez zegoelako. Horrez gain, egunero egin behar da lana. Prezioak baxuak dira eta gizartearen jarraiek ere ez du asko laguntzen. Gauza asko dira. Guk nekazalturismoa ere badaukagu eta horrek baserria gaizki joanda ere babes handia ematen du. Dena den, baserriaren sena duen oro animatzen dut aurrera egitera, hori bai, ondo jakinda errealitatea zein den eta nora doan, izan ere baserria ofizio bat ez baino bizimodu bat da, etika bat, bizitzeko era bat. Gaur egun badaude baserri eskolak, non bizimodu hori ikasten duzun eta benetan gustatzen zaizun edo ez probatu dezakezu hasi aurretik. Horrez gain, esan behar da gazte berri bat baserrian hasten denean elkarlan handia erakusten dutela inguruko baserriarrek eta hori laguntza handia da, eta asko ikasten da.

“Baserria ofizio bat ez baino bizimodu bat da, etika bat, bizitzeko era bat”

“Baserrian ere teknologia berriak izatea ezinbestekoa dugu”

“Gazte berri bat baserrian hasten denean elkarlan handia erakusten dute inguruko baserriarrek eta hori laguntza handia da”

Bertako produktuak

Tokiko produktuen kontsumoa sustatzera, ohiko aurrekontuez gain, 100.000 euro gehiago bideratuko ditu Aldundiak aurrekontu irekietatik

Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste behin ere, herritarren partaidetza bultzatzeko asmoarekin, aurrekontu irekien programa jarri du martxan eta 2020ko proiektu aukeratuak bat, bertako produktuen kontsumoa sustatzea izan da.

Gipuzkoako 13.087 herritarrek hartu dute parte bozketa horretan eta 12 proiektu proposamenen artean gustukoena aukeratu dituzte. Bozkatuenak izan diren sei horien artean, COVID-19aren krisiaren ondorioz izan diren egokitzapenak eta gero, 600.000 euro banatuko dira. Hauek izan dira 2020ko aurrekontu irekien programan bozkatuenak:

1. Gaixotasun larrien aurkako ikerketa: 9.417 bozka.
2. Klimarekiko konpromisoa: 8.372 bozka.
3. Indarkeria matxista prebenitzea gazteen artean: 7.618 bozka.
4. Izango zara 2020. Gipuzkoar gazteentzako beka programa: 6.529 bozka.
5. Gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arretarako zentroa: 6.520 bozka.
6. Bertako produktuen kontsumoa sustatzea: 6.453 bozka.

Bertako produktuen kontsumoa sustatzea

Gipuzkoako gizarteari bertako produktu osasungarriak eskaintzea, lurraldeko lehen mailako sektorea indartzea eta landa inguruneak Gipuzkoako gizarteari eskaintzen dizkion onurez sentsibilizatzea da proiektu honen helburua.

Joseba Miren Muxika, Herritarren Partaidetzarako foru zuzendariak azaldu du “aurten bertan” garatu behar den proiektua dela eta bere xede nagusia tokiko edo bertako produktuen sustapena bultzatzea izango dela: “Oraindik ez dago era bat erabakita sustapena zein modutan bideratuko den, baina Gizarte Politiketako departamentuarekin

hirugarren adineko egoitzetan tokiko produktuak kontsumitzeko egin zen Aitzindari proiektuari jarraipena ematea izango litzateke asmoetariko bat. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez kudeatzen diren erakundeetan tokiko produktuak sustatzea gure eginkizunetako bat da”. Muxikak gaineratu du, COVID-19aren krisia dela-eta urtearen lehen seihilekoan izan diren gorabeherak medio, proiektua bigarren seihilekoan gauzatzea aurreikusten dutela: “Helburu nagusia da gizartearen inpaktu handi bat sortzea, COVID-aren kontuak zerbait erakutsi baldin badigu, bertako produktuen kontsumoak duen garrantzia izan da hain zuzen ere, eta horretaz jabetzen hasiak garela uste dut”.

Presupuestos abiertos

Una vez más la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha puesto en marcha el programa de presupuestos abiertos, con el objetivo de impulsar la participación ciudadana. Este año han participado 13.087 ciudadanos y ciudadanas y uno de los proyectos escogidos ha sido el de promover el consumo de productos locales.



Goilarre programa sortu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Mendiko larreen kudeaketa udalekin eta abeltzainekin modu partekatuan egitea du helburu.

Gipuzkoak, gutxi gora behera, 200.000 hektareako lurraldea du, horietatik % 63 zuhaitzez estalita dago eta 10.983 hektarea mendiko larreak dira. Abeltzaintza ezinbestekoa da mendiko larreak kontserbatzeko baina mendiko abeltzaintzaren zailtasunez jabetuta, mendi hauetan lan egiten duten abeltzainen bizi eta lan baldintza duinak bermatzea eta mendiko larreen kontserbazioa, erronka nagusi bihurtu da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat.

Mendiko abeltzaintzarik gabe, ez dago mendiko larrerik.

Mendiko larreen erabilera gutxitze horren ondorioz eta larreen garbiketa lanetan segidarik izan ez delako, Gipuzkoan tradizioz abeltzaintza estentsiboak kudeatu izan dituen habitat naturalen egoera ez da ona zenbait eremutan: sastrakak nagusitu dira, espezie inbaditzaileak kolonizatu dituzte eta ondorioz babestutako hainbat mendiko larre-habitat

galtzen ari dira edo galtzeko arriskuan daude.

Gipuzkoako Foru Aldundian horren jakitun gara eta mendi larreen kudeaketa eraginkorrago bat egiteko lan eredu berri bat sortu dugu, Goilarre programa hain zuzen. Mendiko larreen kudeaketa udalekin eta abeltzainekin modu partekatuan egitea da helburu: Inbertsioak Gipuzkoako Foru Aldundia, udala eta ganaduzaleen artean adostuko dira eta hauen finantziak Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalaren artean banatuko da. Izan ere, egungo kudeaketa ereduak arazoak sortzen ditu: larre-jabe diren udalek larreak hobetzeko konpromiso maila ezberdinak dituzte, gehienetan batere ez, askotan abeltzainen beharrak ez dira entzunak izaten, abeltzainak ez daude elkarte bidez antolatuta...

Inbertsioak Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak eta ganaduzaleen artean adostuko dira eta hauen finantziak Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalaren artean banatuko da.

Goilarre Programaren bitartez udalek finantziak parte hartzea lortu nahi da, modu horretan inbertsio ahalmena handituz eta ondorioz, mendiko larreetan hobekuntza lan gehiago eginez. Era berean, mendiaren kudeaketa eta mantenuan abeltzainen inplikazioa gehitu nahi da, mendiko erabiltzaile soil izatetik haratago. Modu

harago, mendiko larreak egoera hobean kontserbatu eta abeltzainen bizi eta lan baldintzak hobetuz.

Goilarre Programaren kudeaketa eredu hiru zutabe nagusien arteko lankidetzeta eta koordinazioa ezinbestekoak dira: abeltzainak mendiaren kudeatzaile moduan, udalak mendi-jabe moduan eta Aldundia kudeatzaile-arduradun bezala. Programa honen bitartez lankidetzeta hori bilatu nahi dugu.

Elkarlan ereduak:

- Inbertsio beharrak tokiko abeltzainen, mendi-jabearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean adostuko dira.
- Inbertsioak Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mendi-titularraren artean finantzatu dira.
- Dinamizazio eta idazkaritza lana Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo du.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha el programa Goilarre: un programa para la ejecución de mejoras en los pastos públicos de montaña del territorio histórico de Gipuzkoa, basado en la colaboración entre ganaderos y ganaderas, ayuntamientos y la Diputación.

Arantxa Ariztimuño
GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaria

Finantziak nola kalkulatu da?

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena: 65€/Hektareako + 10€/Hektareako Parke Natural edota Natura 2000 sarea bada + 10 € abeltzain bakoitzeko.

Udalen ekarpena: azken bost urteetako udal aurrekontuaren batez bestekoaren arabera. Udalen kofinantziakoa Gipuzkoako Foru Aldundiak jartzen duen zatiaren % 30etik-% 60ra bitartekoa izan daiteke.

Goilarre-mahaiak.

Elkarlan hau martxan jartzeko 'Goilarre mahaiak' sortuko dira: mendi-titularraren ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta abeltzainen ordezkariak parte hartuko dute eta mahai hauen eginkizunetako bat inbertsio beharrak adostea izango da.

Mendiko larren hobekuntza lanak udalekin eta abeltzainekin modu partekatuan kudeatzeak prozesua konplexuagoa egiten badu ere, eraginkortasunean irabazi egiten da eta Gipuzkoako Foru Aldundia saiakera egiteko prest dago.

Koronabirusak eragindako geldialdia

COVID-19ak eragindako krisiak administrazio desberdinetako aurrekontuen beherakada handiak ekarri ditu, Udal zein Foru Aldundiaren egitasmo asko bertan behera uztera edo maila apalagoan egitera behartuz. Hala ere, Goilarre Programari eusteko ahalegin berezi bat egin dugu, hori bai, programaren irismena eta lehentasunak berrikusi beharrean aurkitu gara. 2020.urteko ahaleginak, mendiko larreen kontserbaziorako oinarriak diren mendi garbiketa lanetara bideratuko dira.

Oiartzungo mendi larreen esperientzia

“Oiartzungo mendietako larreen egoera beste bat da orain eta izugarri eskertuta gaude”

2015-2019 legealdian kudeaketa eredu berri hau Gipuzkoako herri batzuetan jarri zen martxan, horien artean Oiartzunen, 2016. urtetik hasita. Gure Lurra aldizkariari izan duten esperientziaren berri eman diote bertako abeltzainek. “Mendiko larreen egoera gero eta txarragoa zen, gero eta baserritar gutxiago geunden eta ondorioz gero eta gutxiago ginen larre hauek erabiltzen genituen abeltzainak; zikinak hartzen ari ziren larreak, abandonaturik geratzen ari ziren. Aldundira jo eta jaramonik ez ziguten egiten, udalera jo eta inork ez zigun konponbiderik ematen. Oso bakarrik sentitzen ginen, urteak generamatzan laguntza eske eta dagoeneko etsita geunden”, dio Jose Miguel Galdos ganaduzale oiartzuarrek. Gaineratzen du, Oiartzungo ganaduzale askok ere ganaduak mendietara eramateari utzi ziotela, egoera “penagarria” zelako.

“Oso bakarrik sentitzen ginen, urteak generamatzan laguntza eske eta dagoeneko etsita geunden”

“2015ean, Arantxa Ariztimuño Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natur Ingurune Zuzendari postua hartu eta gutxira, berarekin hitz egiteko aukera izan nuen feriatan, eta bizi genuen egoeraren berri azaldu nion. Horri eskerrak, hilabete gutxira, 2016ko otsailean Aldundiak proposatuta, larreen inguruko lehen bilera egin genuen Oiartzungo Udalean”. Bilera

hartan Aldundiko Landa Ingurune bi zuzendariak, Arantxa Ariztimuño eta Xabier Arruti, Oiartzungo Udaleko alkatea, zinegotzia eta Ingurumen teknikaria eta ganaduzaleak elkartu ginen.

Oiartzungo Lan-taldea martxan

Lan-taldea deituriko lan dinamika bat jarri zuten martxan eta koordinatzaile





Jabier Jauregi, Etorlur, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sozietate publikoko landalurren dinamizatzailea izendatu zuten. Bertan Aldundiak bideratutako 30.000 euroez gain Udalak beste 30.000 euroko laguntza zuzentzea adostu zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Oiartzungo Udalaren eta ganaduzaleen arteko lan dinamika bat jarri zen martxan. "Oso pozgarria izan zen, hainbeste urteren ostean, azkenean lortu baikenuen egoerari buelta ematea eta gure larreetan hobekuntzak ikustea. Lan-talde honen bitartez Udala inplikatzera behartua ikusi zen eta hori ezinbestekoa da. Geroztik, urtean lau-bost bat bilera ospatzen ditugu, mendien beharrak identifikatu eta lanak martxan jartzeko eta baita urteroko batzar bat ere, non ganaduzale guztiak elkartzen garen", dio Juan Cruz Zabaletak.

"Oso pozgarria izan zen, hainbeste urteren ostean, azkenean lortu baikenuen egoerari buelta ematea eta gure larreetan hobekuntzak ikustea".

2016an Oiartzungo lan-taldea ekimena martxan jarri zenetik larreak hobetzeko hainbat lan egin dira: garo eta ote xehaketa lanak, sastrakak estalitako gunek garbitu, itxiturak berri, harrapalekuak egokitu eta abar. Horrez gain, abeltzainen artean sortu den poza eta animoaren ondorioz, auzolanak bideratzea lortu da.

"Oiartzungo mendietako larreen egoera beste bat da orain eta izugarri eskertuta gaude. Aldundiarengatik izan ez balitz Oiartzungo mendi larreek berdin-berdin, abandonatuak izateko bidean, jarraituko zuten beste 30 urtean eta hori pena handia da", dio Galdosek.

Juan Irastorza ganaduzalea ere oso pozik dago lan dinamika honen emaitzarekin eta bere abereek ere eskertu dutela adierazi du: "Animaliak mendian, aske ibiltzen dira gustuen, eta mendi garbi eta seguru batzuk izatea ezinbestekoa dugu abereak kalitatez bizitzeko eta ondoren esne eta haragi osasuntsuak ekoizteko. Izugarri nabari zaio ingurune eta egoera on batean

dagoen animalari", azaldu du Juan Irastorza ganaduzale oiartzuarra.

Julen Irastorza Oiartzungo ganaduzaleak zera azpimarratu du: "Nire aitona eta nire aitak, artzainak biak, ez zuten erakunde publikoen beharrik mendiko larreak garbi mantentzeko baina nik bai, gero eta gutxiago baikara, eta erakunde publikoek beraiek ere behar naute larreen kontserbaziorako eta ingurumenaren onurarako".

"Erakundeen laguntza beharrezkoa dut, baina erakundeek beraiek ere behar naute. Lankidetzaz ezinbestekoa da"

Hori dela-eta, Oiartzungo ganaduzaleek oso modu positiboan baloratu dute Aldundiak Goilarre programa Gipuzkoako Herri Onurako 28 mendi-larreetara bideratu izana. "Goilarre programa Aldundiak berak sortu duen inizatiba bat izan da, gabezia bat ikusi dutelako eta konponbide bat eman nahi diotelako eta hori txalagarria da. Beraz, beste herrietako abeltzainei lan-talde bat sortzeko aukera hau aprobetxatzeko mezua luzatzen diet. Guri oso lagungarri izan zaigu eta ziur beste herrietan ere lagunduko diela", dio Julen Irastorzak.

"Beste herrietako abeltzainei lan-talde bat sortzeko aukera hau aprobetxatzeko mezua luzatzen diet".

Sagardogile, zurekin gaude!

Zapiain sagardotegia, aurtengo irabazlea

Ekainaren 19an ospaturiko Gipuzkoako XIX. Sagardo Lehiaketan Zapiain sagardotegia irten zen garaile, txapela, aurtengo garaikurra "kizkia" eta 3.000 euroko saria eramanez zituelarik etxera. Lehiaketara aurkezturiko 27 sagardotegietatik 17ek lortu dute aurtengo domina.

Sagardogile, zurekin gaude!

Imanol Lasa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatuak COVID-19 ak sagardogintzari egin dion kaltea izan zuen gogoan. "Krisiaren aurkako gure plangintzan, pandemiak gehien zigortutako azpisektoreak hartu ditugu kontuan. Horien artean dago sagardogintza. Hori dela-eta, azpisektore horretarako dirulaguntza zuzen bat bideratzea erabaki dugu, egoera zail honetan babesa eskaintzeko. Oraindik xehetasun guztiak lotuta ez badaude ere eta sektoretik ekarpenak jasotzeko aukera irekia badugu ere, aurreratu dezakegu Gipuzkoan duden 70 sagardogileei zuzendutako dirulaguntza berria jarriko dugula martxan. Horren zati bat modu linealean banatuko da, kopuru finko batekin, eta bestea, berriz, Euskal Sagardoa egiteko ekoizten duten sagar kopuruaren arabera".

Euskal Sagardoaren aldeko apustua

Markel Olanok azpimarratu bezala, lehiaketa honen helburu nagusia bertako sagarrarekin egindako sagardoa, Euskal Sagardoa jatorri-izendapena, balioan jartzea, sustatzea eta saritzea da: "Duela 3 urte ia ez zegoen sagastirik Gipuzkoan, eta sagardo gehiena kanpotik ekarritako sagarrekin ekoizten zen. Hala ere, sagardogintza tarte honetan asko aldatu da. Egun, Gipuzkoan ekoizturiko sagardoaren % 33 bertako sagarrarekin eginda dago eta Euskal Sagardoa deitura duen sagardoa egitera bideratzen da". Horrez gain, Aldundiak sagardogintzaren sektorea sustatzen jarraituko duela gaineratu zuen Diputatu Nagusiak: "Dirulaguntza lerroari jarraipena emango diogu, sagardoa % 100 sagar autoktonoarekin ekoiztera iristea baita helburua, izan ere asko dira onurak: bai prozesu guztiaren kalitate kontrola gauzatzeko, bai lehiakortasun handiagoa sortzeko eta baita Kilometro Oren aldeko apustuan sakontzeko ere".



Irabazlea:
ZAPIAIN

Urrea:

ITXASBURU
GARTZIATEGI
AKARREGI
URDAIRA
ISASTEGI
IZETA
ALTZUETA
LIZEAGA
ZAPIAIN
ABURUZA
ZELAIA

Zilarra:

IPARRAGIRRE
OIHARTE
ALORRENEA
GURUTZETA
ETXEBERRIA

Brontzea:

PETRITEGI

La sidrería Zapiain, ganadora de este año

En el XIX. Concurso de Sidra de Gipuzkoa celebrado el 19 de mayo, la sidrería Zapiain resultó vencedora y se llevó a casa la txapela, el 'kizki' como trofeo de este año y un cheque de 3.000 euros. Este año, de las 27 sidrerías que se presentaron 17 consiguieron la medalla.





Ahularen ahulgarri

Euskarak baditu zenbait atsotitz egoera jakin baten aurrean norbait ahul sentitzen denerako: zuhaitz eroriari orok egur; orratza, bat bakarria duenari galtzen zaio; ahulak berekin du ahulgarria; azienda ahulak zorri asko; batzuei gaztanberan ere hezurra; oilo gaixoari denak mokoka; or flakia, oro küküso...

Lehen sektoreko jende askok ikusiko zuen bere burua horrela pandemiak harrapatu gintuenean. Bestela nahiko lan ez-eta, ahularen ahulgarria. Gizarteari, oro har, ondo etorri zaio funtsezkoa, ezinbestekoa, zer den konturatzeko. Jatea da ezinbestekoa, elikatzea, gure arrantzale, artzain, nekazari eta abeltzainengandik datozkigun kalitatezko jakiak dira ezinbesteko. Edozein gizarteren enbor nagusia da lehen sektorea, eta inoiz baino ageriago geratu da xomorro batek mundua geldiarazi duenean.

Txakolingintzan diharduen adiskide min baten ondoezak bistaratu dit egoeraren larria. Zaildutako mutila da, bere

burua aurrera atera duena, zailtasunei aurpegi ematen ohitua. Oraingo hau guztiz ezezaguna du, ordea. Egindako inbertsio guztiei erantzun behar, zama handia bizkarrean, eta merkatua geldirik. Bidaltzen dizkidan argazki guztietan bere etengabeko jarduna islatzen da beti: hatzen batean egindako zauria, mahasti zainduen irudiak... Halako batean, oso bestelako bat bidali zidan: ospitaleko ohe batean etzanda ageri zen. Egoeraren itolarriak antsietatea eragin zion. Nire laguna bezala, zenbat langile ari ote dira gauez begirik bildu ezinik, gainera etorri zaienari nola erantzun ez dakitela, etorkizun hurbilak zer dakarkien aztarrenik gabe? Eta horien artean, ahulenetakoak lehen sektoreko beharginak.

Laguntzak aktibatu dituzte, herritarren kontzientzia ere ernatu da hein batean, baina pandemiak argi utzi du zein gizarte-eredu den jasangarri eta zeini ez geniokeen biderik eman behar. Denen beharra izango da itsasotik bizi direnak ito ez daitezen, eta lurretik bizi direnek lur jo ez dezaten.

Xabier Euzkitze

ALBISTE LABURRAK



En marcha la nueva página web Gipuzkoanatura

Impulsada por la Diputación Foral de Gipuzkoa, la nueva web 'Gipuzkoanatura' (www.gipuzkoanatura.eus) está en funcionamiento. El objetivo principal es ofrecer a la ciudadanía información práctica y actualizada sobre los parques naturales, los senderos homologados y las actividades de educación ambiental.

"Se trata de una herramienta completa y, sobre todo, de


una invitación a adentrarse en el territorio y conocer los tesoros que alberga, desde el punto de vista natural, paisajístico y cultural. Todo ello en un momento en el que el compromiso de todos y todas es clave para revitalizar la actividad turística, comercial y hostelera en Gipuzkoa", ha destacado el diputado de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural Imanol Lasa.

Idiazabal gazta berriaren aurkezpena

XXVI. Idiazabal Gazta berriaren aurkezpena ospatu zuten maiatzaren 27an Ordizian eta Bilboko Porrue jatetxeko Unai Campo sukaldariak izan zuen gazta berria ebakitzearen ohorea. Idiazabal Jatorri Izendapeneko erregulartasun sariak lilduiko La Lezek –artzain kategorian– eta Asteasuko Goinek –

gaztandegia– jaso zituzten.

Xabier Arruti, Nekazaritzako eta Lurralde Oreako zuzendariak, artzaintza sektorearen lan baldintzak hobetzeko ahaleginetan diharduten herri ordezkarietara aitortza bat egiteko aprobetxatu zuen ospakizun eguna.



Más de 41.000 animales han subido a los pastos de los montes de Gipuzkoa

Como cada año, el 1 de mayo se abrieron los pastos de los montes de distintos pueblos y comarcas de Gipuzkoa. Este año, 562 ganaderos y ganaderas han subido un total de 41.466 animales; la Diputación Foral de Gipuzkoa ha autorizado 35.626 ojevas, 2.956 vacas y 2.884 caballos y yeguas.

En total se han abierto 22 pastos de Gipuzkoa: Marumendi de Ataun, Aloña de Oñati, Aizpuru de Mutiloa, Aralar, Añarbe de Rentería, Izarraitz de Azpeitia, y el monte Jaizkibel de Lezo, Pasaia y Hondarribia, entre otros.

Nekazaritza ta turismoa elkartzeakin batera baseritarrei sortu zitzairen beste lan baten aukera Elkarte baten laguntzarekin asko sendotu gainera

zailtasun asko izanagatik iritxi gaur egunera Lehen sektoreak behar zaituzte ta segi gogor aurrera.

Xabier Arruti



Nekaturren urteko batzarra ospatu zuten Gasteizen

Nekatur, Nekazalturismo eta Landaturismoen Elkarteak urteko batzarra ospatu zuen martxoaren 4an Gasteizen. Bertan, belaunaldi aldaketa egin duten Landa-Etxe eta Nekazalturismoen omenaldi txikia egin zitzairen, lurralde bakoitzean 2019 urtean aldaketa egin zuten ostaturko azken kideei oroigarria eskainiz.

Xabier Arruti eta Iker Goiria Aldundiko nekazaritza eta turismo zuzendariak ere bertan izan ziren, eta nekazalturismoek eta landa-etxeek Gipuzkoako lehen sektorearen eta turismo jasangarriaren aldeko apustuan duten garrantzia azpimarratu zuten.



Exitosa subasta virtual del Centro de Testaje de Aia

La primera subasta celebrada vía on line del Centro de Testaje de Aia se saldó con un gran éxito. Los y las ganaderas hicieron sus pujas del 17 al 19 de abril, mediante la página web del centro – www.testajeaia.com – y participaron 109 baserritarras; de los 36

ejemplares que se pusieron a la venta se vendieron 30.

Aparte de los y las ganaderas de la Comunidad Autónoma Vasca, también hubo compradores y compradoras de Navarra, Zamora, Salamanca, Ávila, Soria y Huelva.

Fraisoro Laborategiak emaitza bikaina

Gipuzkoako nekazal berrikuntzarako laborategiak, ENAC erakundearen auditorian emaitza bikaina lortu du. Analisisen urteroko akreditazioak mantentzeaz gain berriak ere lortu ditu, laborategiak berrikuntzaren alde egiten duen lana balioan jarriaz.

Fraisoro Laborategia kalitatearen erreferente bihurtu da. Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu publikoa da, eta Landa Ingurunearen garapenerako eta ingurugiroaren alorrean, berrikuntza, garapena, kalitatea eta ebaluaketa analitikoak zerbitzuak eskaintzen ditu.



Repoblación exitosa del pez espinoso

EL Servicio de Fauna y Flora Silvestre de la Diputación, ha conseguido reproducir con éxito el pez espinoso (*Gasterosteus aculeatus*), y ha iniciado los trabajos de repoblación con esta especie.

El espinoso es una especie amenazada en la CAPV, catalogada como "vulnerable", y si bien en el pasado presentaba un área de distribución más

amplia, siempre ligada a estuarios, en la actualidad su última población se encuentra en las marismas de Jaizubia (Hondarribia).

En 2019 se realizó la primera repoblación con algo más de 1.100 ejemplares, y en estos momentos se trabaja intensamente para poder realizar más repoblaciones en 2020.



Berriro ere martxan da partaidetza dinamika

Aldundiak partaidetza dinamika berri ere martxan ipini du. Aurreko legegaldiko bidea jarraituz, lehen sektoreko eragileen arteko lan dinamika abian jarri

da, Eurogap kanpo enpresaren aholkularitzapean. Talde honen lehen egitekoa Europako dirulaguntza programetan ekintzak txertatzea izango da.



Actuaciones del Fondo de Suelo Agrario

El Fondo de Suelo Agrario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, entre sus actuaciones, ha promovido la puesta en producción de 14,64 ha. de terreno para uso de agricultura ecológica y convencional y 11,70 ha. para uso de pastos ganaderos. La personas adjudicatarias actuales de las

fincas ofertadas en las cinco convocatorias realizadas desde 2013 son 12. Estas actuaciones se han realizado en terrenos propios de la Diputación Foral de Gipuzkoa en las zonas denominadas Urreleku y Terrenos del Alto de Gaintzurizketa, ambas en el término municipal de Lezo.

MENDIAN TXAKURREKIN ARAZORIK BADUZU DEITU BASOZAINARI

Mendian solte dabiltzan txakurrek ganaduari eragindako kalteen inguruko kexak ugariak dira. Egoera horretan aurkituko bazina, ez egin zalantzarik eta deitu dagokizun basozainari konponbidea eman diezaiola. Herriko basozainak erantzun ezean (oporrak, bajak etab.) Aldundiko bulegoko telefonora deitu 943000420, eta handik bideratuko da gaia.

Abaltzisketa	688 682 639	Eibar	649 867 671	Mendaro	649 867 671
Aduna	649 860 710	Elduain	649 866 758	Mondragón	649 860 058
Aia	649 871 057	Elgeta	649 859 726	Mutiloa	639 536 040
Aizarnazabal	649 871 214	Elgoibar	649 867 671	Mutriku	619 112 738
Albiztur	618 046 602	Enirio-Aralar	686 454 233	Oiartzun	649 859 630
Alegia	649 866 761	Errenteria	649 857 988	Olaberria	649 858 142
Alkiza	620 869 216	Errezil	659 091 627	Oñati	649 859 803
Altzaga	688 682 639	Eskoriatza	649 860 058	Ordizia	688 682 639
Altzo	649 866 761	Ezkio	688 682 639	Orendain	649 866 761
Amezketza	649 866 761	Gabiria	649 859 763	Orexa	618 046 602
Andoain	649 860 710	Gaintza	688 682 639	Orio	649 871 057
Anoeta	620 869 216	Gatzelu	618 046 602	Ormaiztegi	649 858 142
Antzuola	660 022 030	Getaria	649 871 214	Partzoneria	679 835 562
Arama	688 682 639	Hernani	688 764 961		649 867 109
Aretxabaleta	649 860 058	Hernalde	620 869 216	Pasaia	649 871 401
Arrasate	649 860 058	Hondarribia	649 871 401	San Sebastián	688 764 960
Asteasu	620 869 216	Ibarra	649 866 758	Segura	649 859 763
Astigarraga	688 764 960	Idiazabal	649 858 142	Soraluze	649 867 671
Ataun	649 858 347	Ikaztegieta	649 866 761	Tolosa	618 046 602
Azkoitia	688 741 882	Irun	649 871 420	Urnieta	650 755 246
Azpeitia	649 867 463	Irura	620 869 216	Urretxu	649 859 763
Baliarrain	649 866 761	Itsaso	688 682 639	Usurbil	688 764 960
Beasain	688 682 639	Itsasondo	688 682 639	Villabona	620 869 216
Beizama	659 091 627	Larraul	620 869 216	Zaldibia	688 682 639
Belauntza	649 866 758	Lasarte-Oria	688 764 960	Zarauz	649 871 057
Berastegi	649 866 758	Lazkao	649 858 347	Zegama	639 536 040
Bergara	649 859 726	Leaburu	649 866 758	Zerain	639 536 040
Berrobi	649 866 758	Legazpi	649 859 763	Zestoa	649 871 214
Bidania-Goiatz	659 091 627	Legorreta	649 866 761	Zizurkil	649 860 710
Deba	619 112 738	Leintz-Gatzaga	649 860 058	Zumaia	649 871 214
Donostia	688 764 960	Lezo	649 871 401	Zumarraga	649 859 763
		Lizartza	618 046 602		

Gipuzkoako Foru Aldundiko atekak zabalik



Eman zure iritzia eta irabazi sagardo kaxa bat:

Gure Lurra aldizkariaren bigarren alean gaude eta zure iritzia garrantzitsua zaigu hobetzen jarraitu ahal izateko. Hori dela-eta, anima zaituzte esteka honetan topatuko duzun galdetegia betetzera; erantzun guztien artean Euskal Sagardoa jatorri-deituradun sagardo kaxak zozketatuko ditugu. Irailaren 1ean burutuko da zozketa eta irabazleekin harremanetan ipiniko gara etxera sagardo kaxa bat helarazteko.

- **EPEA:** Abuztuaren 28a osatzeko azken eguna.
- **GALDETEGIRA SARTZEKO ESTEKA:**

<https://labur.eus/Rgkcd>



ZOZKETA

INFORMAZIO BULEGOA ETA ERREGISTROA

TELEFONOA	TELEFONOA	ESKAKIZUNAK	HELBIDEA	ORDUTEGIA
943 112 198	943 431 154	Gertubide	Gipuzkoa plaza z.g., laugarren solairua. 20004, Donostia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara

HERRIA	TELEFONOA	HELBIDEA	ORDUTEGIA	EMAILA
Azpeitia	943 150 495	Julian Elorza 3, behea. 20730, Azpeitia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_azpeitia@gipuzkoa.eus
Bergara	943 760 294	Urteaga 21, behea. 20570, Bergara	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_bergara@gipuzkoa.eus
Elgoibar	943 743 281	Kalebarren, 1-2. 20870, Elgoibar	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_elgoibar@gipuzkoa.eus
Hernani	943 493 661	Ibaiondo poligonoa 27, 2. pisua. 20120, Hernani	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_oiartzun@gipuzkoa.eus
Ordizia	943 161 463	Santa Maria 4, behea. 20240, Ordizia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_ordizia@gipuzkoa.eus
Tolosa	943 650 570	Nafarroa Hiribidea 6-2. 20400, Tolosa	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_tolosa@gipuzkoa.eus
Zarautz	943 134 051	Mitxelena 87. 20800, Zarautz	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_zarautz@gipuzkoa.eus

Gipuzkoako parketxe sarea

Helbidea: 20567 Aranzazu, Guipuzkoa
 Telefonoa: 943 78 28 94
 Webgunea: gipuzkoanatura.eus

Etorlur

Helbidea: 1, Ibaiondo Ind., 27, 20120 Hernani
 Telefonoa: 943 33 75 56
 Webgunea: etorlur.eus

Harremanetarako: gurelurra@gipuzkoa.eus

Hurrengo aleak emailez jaso nahi dituzu?

Lagundu iezaguzu paperaren erabilera murrizten. Gure Lurra aldizkariaren hurrengo aleak email bidez jaso nahi badituzu, bidali iezaguzu mezu bat. Postaz jasotzeko zerrendatik kendu eta email bidez jasotzekora gehituko zaitugu.

Gure zerrendetatik baja eman

Aldizkaria Gipuzkoako lehen sektoreko eragile eta ustialekuen jabeek dago zuzendua. Zu zerrenda horretan zaitugulako jaso duzu aldizkaria. Dena den, ez baduzu aurrerantzean jaso nahi aukera duzu baja emateko, goian aipaturiko helbidera idatziaz.

Gure zerrendetan alta eman

Gure Lurra Aldizkariak gain, Gipuzkoako Landa Inguruneko sailetik aldikako komunikazio ekintzak burutuko dira. Zure email edo/eta telefonoa bidali iezaguzu hartzaileen artera gehitu zaitzagun.



Aldizkariaren bertsio
digitala kontsultatu:

www.gipuzkoa.eus/eu/web/landaeremua/aktualitatea/argitalpenak

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro